ETXEKO KONPOSTA EGITEKO ESKUHORRIA

GAI ORGANIKO HONDARRA, GURE LURZORUARENTZAT BALIOGARRI BIHURTUZ

Mank sakana

KOKAPENA: **GERTU, ESKURA, LUR GAINEAN eta EGUZKI ITZALETAN**.

Lurreko organismoak heldu ahal izateko eta lurzoruak lixibiatuak xurgatzeko.
Zuhaitz hosto erorkorrak babestua, hotzetik, haizetik eta euritik babestua, tenperatura eta hezetasuna mantentzeko.

MUNTAIA:

Metalezko **mailazoa** lurrean jarri satorren eta xaguen sarrera sahiesteko.	**Hormak lurrean jarri** eta makilekin lotu	Altxatu eta **horma guztiak lotu.**	Estalkia ipini eta barruan **estrukturantearekin ohe bat** egin, 10-15 cm-ko geruza.

ZER BOTA DAITEKE: Materia heze eta lehorrak, ongi nahastuz. Zenbat eta gai mota desberdin gehiago hobe.

MATERIA BERDEA(hezea)=JANARI HONDARRAK

Haragia-Arraina
Fruitu eta barazkiak
Arroza-Pasta-Ogia
Lore freskoak
Belarra-Hosto berdeak
kafe hondarrak
Infusio poltsatxoak
Simaurra

MATERIA MARROIA (lehorra)=EGITURATZAILEA

Hosto lehorrak
Lastoa-Adartxoak
Inauste hondar xehetuak
Fruitu lehorren oskolak
Fruta hezurrak
Zura txirbila.
Egur tratatugabearen zerrautsa.

KONPOSTA NOLA EGIN: Materia berdearen eta marroiaren arteko oreka mantenduz.

- Materia berdea, etxeko janari hondarrak, **txikitu** prozesua azkartzeko eta konposterara gehitu.
- Zulagailuarekin zuloak egin 5-6 lekutan eta **nahastuz aireztatu**. (1-2 aldiz astean).
- Materia marroiarekin-lehorrarekin (**egituratzailea**) estali. Usai txarrak eta eulitxoak sahiesteko eta aireztatzea errazagoa izateko, konpost pila konpaktatu ez dadin.

KONPOST LAGUNAK:

Konpost meta bizirik dagoen seinale honako xomorroak aurkituko dituzue.
Beraiek dira konposta sortzen dutenak: zizareak, bareak, bitxo bolak…



GOMENDIOAK	**Errautsa ez bota**, konpost lagunak hiltzen ditu. **Belarra hobe lehorra** eta geruzaka gehitu. **Txakur eta katuen gorotzak ez** bota patogenoak dituzte.	Konposterak **beti hezea** egon behar du. Materialak **ongi nahastu** erdigunetik pasatzeko, hor baitago tenperatura altuena eta horrela produktu higienizatuagoa lortzen da.

ARAZOAK NOLA KONPONDU

Usain txarra edo materiala trinkotuta		Aireztatu, nahastu eta egituratzailea gehitu.
Euli eta intsektu asko (ez da txarra, insektizidarik ez erabili)		Nahastu, gai freskoak lurperatu eta materia marroiarekin estali.
Prozesua geldirik edo oso motel doa	**Ez da berotzen.** **Hezetasun falta.**	Ur epela bota ur zabaltzailearekin edo euria egitean tapa ireki. Hondakin berdeak-freskoak gehitu eta nahastu.
	Hezeegia	Estalkia ireki egun eguzkitsuetan. Ongi nahastu eta material marroia gehitu. Hau egun batzuetan errepikatu.
Inurri asko dagoenean oso lehorra dago		Busti busti egin arte ongi ureztatu

KONPOSTA NOLA ATERA: Urtean behin. Udaberria garai ona da. Normalean 6-9 hilabetetan konposta egina dago.

Beheko pareta puska bat ireki lehortzeko.
Eta egun batzuren ondoren palakin hartu.
Hezeegia badago **eguzkitan zabaldu.**
Txoriek larba eta intsektuak jango dituzte.

Bahetik pasa. Bahean geratzen dena, deskonposatu gabeko hezur eta oskolak, berriro konpostatzera bota, deskonposaketa geldoa dute.
Konpost heldua meheena da, bahetik pasatzen dena.

KONPOSTAREN EZAUGARRIAK	kolore **iluna** eta **basoko lur usaina.** Granulometria **uniformea** eta **soltea**. Ez dira hasierako materialak ezagutzen. Eskuarekin estutzean **eskua bustitzen da baina tantarik isuri gabe** eta eskua zikindu gabe.

Informazio gehiago doako telefonoan: 900 730 450